
PRENTSA OHARRA

ARTISTENTZAKO EKOIZPEN LAGUNTZA BERRIAK ATERA DITU BILBOKO UDALAK BILBAOARTE FUNDAZIOAREN BIDEZ

- **8 hiru-hilabeteko laguntzak izango ditu programa honek, 1.200 euroko ekarpena eta proposamenen garapenean prestaketa teknikoak eskainiz.**
- **Laguntza hauen izaerak arte plastikoekin harremana duen edozein diziplina barneratzen du, bakarkakoa nahiz taldekakoa. Deialdi honetara ibilbide artistiko eta akademiko sendo bat bermatzen duten edozein adin eta jatorriko pertsonak aurkeztu daiteke.**
- **Laguntza berri hauek BilbaoArtek urtero ateratzen dituen estudio gabeko ekoizpen bekak ordezkatzeko dituzte.**

(Bilbon, 2018ko urriaren 11an). Artistentzako ekoizpen laguntza deialdi berri bat atera du Bilboko Udalak, BilbaoArte Fundazioaren bidez, bere lehen edizioa 2019ko otsaila eta apirila artean izango delarik. 8 hiru-hilabeteko laguntzak izango ditu programa honek, 1.200 euroko ekarpena eta proposamenen garapenean prestaketa teknikoak eskainiz. Laguntza berri hauek estudio gabeko ekoizpen bekak ordezkatzeko dituzte, eta zentroak urtero ateratzen dituen beken programarekin batera garatuko dira.

Bilboko Udalaren arte produkzio zentroak, kultura indartu eta arte sormena bultzatzeko duen grinan, Bilbao Bizkaia Kutxa BBK Fundazioarekin elkarlanean ondorengo produkzio laguntza deialdia argitaratu du, azken garapen fasean dauden arte proiektuak gauzatzeko.

Hau dela eta, produkzio laguntza hauetarako bereziki baloratuak izango dira proiektuaren aurkezpenean lanerako plan dokumentatua eta bitarteko batek hartutako konpromisoa (erakunde, arte zentro, galeria pribatu...) jasotzen dutenak, hau da, emaitza erakusteko interesa eta nahia erakustea.

Laguntza hauen izaerak arte plastikoekin harremana duen edozein diziplina barneratzen du, bakarkakoa nahiz taldekakoa. Deialdi honetara ibilbide artistiko eta akademiko sendo bat bermatzen duten edozein adin eta jatorriko pertsonak aurkeztu daiteke.

Arte produkzioa bultzatzeko eta euskal lurraldeko arte espazio publiko nahiz pribatu ezberdinekin kolaboratzeko dugun konpromisoan, hiru hilabeteko iraupena duten 24 laguntza proposatzen dira (8 deialdi bakoitzeko), proiektua gauzatzeko materialentzat gehienez 1200 euroko ekarpena izango delarik laguntzako. Modalitate honetan ezarritako epe bakoitzean gehienez 8 laguntza emango dira.

Lehen deialdia 2019ko otsailaren 1etik apirilaren 30era arte garatuko da eta izena emateko epea 2018ko urriaren 5etik 31ra arte egongo da irekita. Bigarren deialdia maiatzaren 1etik uztailaren 31ra garatuko da (izena emateko epea 2019ko urtarrilaren 7tik 31ra izango delarik); eta hirugarrena abuztuaren 1etik urriaren 31era (izena emateko epea 2019ko maiatzaren 6tik 31ra izango da).

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO, A TRAVÉS DE LA FUNDACIÓN BILBAOARTE, LANZA UNA NUEVA MODALIDAD DE AYUDAS A LA PRODUCCIÓN PARA ARTISTAS

- El programa contará con 8 ayudas trimestrales de una dotación económica de hasta 1.200 euros y asistencia técnica en el desarrollo de las propuestas.
- La naturaleza de estas ayudas incluye cualquier disciplina artístico-plástica, tanto individual como grupal. Pueden presentarse a esta convocatoria todas las personas que acrediten una trayectoria artística y académica solvente con independencia de su edad y origen.
- Las nuevas ayudas sustituyen a la antigua modalidad de becas anuales de residencia sin estudio.

(Bilbao, 11 de octubre de 2018). El Ayuntamiento de Bilbao, a través de la Fundación BilbaoArte lanza la convocatoria de ayudas a la producción para artistas, cuya primera edición comenzará el próximo mes de febrero de 2019. El programa contará con **8 ayudas trimestrales de una dotación económica de hasta 1.200 euros y asistencia técnica en el desarrollo de las propuestas.** Estas nuevas ayudas sustituyen a las antiguas becas de producción sin cesión de estudio, y se desarrollarán paralelamente al programa anual de becas del centro.

El centro para la producción artística dependiente del Ayuntamiento de Bilbao, en su deseo de potenciar la cultura e impulsar la producción artística, colabora con la Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa BBK en la edición de la presente convocatoria de ayudas de producción para la **realización de proyectos artísticos que se encuentren en su última fase de realización.**

En consecuencia, para estas ayudas de producción, serán valorados muy especialmente los proyectos que en su presentación aporten un documentado plan de trabajo así como el compromiso adquirido por terceros: instituciones, centros de arte, galerías privadas, etc., manifestando su interés y/o voluntad de exponer el trabajo producido.

La naturaleza de estas ayudas incluye **cualquier disciplina artístico-plástica, tanto individual como grupal.** Pueden presentarse a esta convocatoria todas las personas que acrediten una trayectoria artística y académica solvente con independencia de su edad y origen.

En el compromiso del centro por facilitar la producción artística y colaborar con los diferentes espacios artísticos tanto públicos como privados del territorio vasco, se propone hasta 24 ayudas de temporalidad trimestral (8 por convocatoria) con una aportación económica para material utilizado en la concreción de hasta 1.200 euros por ayuda.

La primera convocatoria, a desarrollar entre el 1 de febrero y el 30 de abril de 2019, abre su plazo de inscripción el 5 de octubre y atenderá propuestas hasta el 31 de octubre de 2018. La segunda convocatoria irá del 1 mayo al 31 de julio (plazo de inscripción del 7 al 31 de enero de 2019); y la tercera del 1 de agosto al 31 de octubre (plazo de inscripción del 6 al 31 de mayo de 2019).

Informazio gehiago / Más información



Fundación BilbaoArte Fundazioa

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | prentsa@bilbaoarte.eus